

ARTEA. Bilboko erakundeak partikular bik emandako Guinea eta Bocanegraren zenbait obra ere eskuratu ditu

Garaikidetasunari bide ematen jarraitzen du Arte Eder museoak

Pinakotekak Arias, Herrero, Gortazar eta Luis Fernandezen zazpi margolan erosi ditu

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Pixkanaka-pixkanaka arte garaikidearen esparrua sendotuz doa Bilboko Arte Eder museoa. Azken erosketen oihartzuna oraindik baretzeko dagoenean —duela hilabete eskas Miquel Barloren *Des potirons* eta zenbait euskal artista esanguratsuri erositako obren berri eman zuen pinakotekak—, bilduma pribatua handitzeari uzteko inolako asmorik ez duela argi utzi du erakundeak. Horren adibide dira herenegun arratsaldean hitzartu eta dagoeneko museoan dauden obra berriak. Amable Arias, Alfonso Gortazar, Mari Puri Herrero eta Luis Fernandezen zenbait koadrok osatzen dute arte pakete berria, azpimarratzeko paketea hain zuzen.

Artelanok eskuratzeko 248.072 euro inbertitu ditu Arte Eder museoak, eta horietatik 150.000 Madrilgo galeria batek eraman ditu Luis Fernandez

margoagatik. Erosketak iaz, urte amaieran, BBVAk pinakotekari egin zion kredituaren bidez bideratu zituzte. Orduko hartan hamar urtetan ordaintzeko sei milioi euroko kreditua onartu zioten Arte Eder museoari, eta haren bitartez dagoeneko 30 obra erosiak ditu erakundeak.

Lurraldeari loturiko lanak

Ikustezinaz I (1972) eta *Ikustezinaz II* (1972) margoak dira Amable Ariasek (Leon, 1927-Donostia, 1984) museoan utziko dituen hondar aleak. Azalera gorriaren gainean, trazo leun eta zuzenez margoturikoak biak, artistaren barne mundua islatzen dute margolanek. Lehenagotik pinakotekak Ariasen beste bi artelan ditu: *Grisak eta moreak* (1964) eta *Pintura* (1970). Mari Puri Herreroaren (Bilbo, 1942) margoak, berriz, artistaren azken uztakoak ditugu. *Areatza hondoan* (1999) eta



ALFREDO ALDAI / EFE

Javier Viar, atzean Luis Fernandez *Course de taureaux* duela.

Albia (2002) olioek egileak hain present duen Bilbo agertzen dute, modu onirikoan agertu ere. Bi lan horien erosketaz gain Herreroaren hogeitabait grabatu jaso ditu Arte Eder museoak.

Orain arte Alfonso Gortazarren (Bilbo, 1955) *Behi pintura* (1981) ikus zitekeen pinakotekan, baina hemendik aurrera hari beste bi koadro gaineratu-

ko zaizkio: *Izenik gabe* (1991) eta *Izenik gabe* (2002) olioak. Bere ohiko estiloari jarraituz, lan biak ikonografiaz beterik daude. Luis Fernandez (Oviedo, 1900-Paris, 1973) *Course de taureaux* (1940), aldiz, egileak gertutik ezagutu zuen errealitateari loturik dago. Azken pakete honetako obra izarra denak badu Picassoren eragina, formetan eta estiloan,

OBRA BERRIAK

Garaikidetasunaren gako

Amable Arias. *Ikustezinaz I* (1972) eta *Ikustezinaz II* (1972) margolanak erosi zituzte. Gainera, egilearen ondorengoek hamar marrazki eman dizkiote museoari. Aldez aurretik pinakotekak *Grisak eta moreak* (1964) eta *Pintura* (1970) obrak zituen.

Alfonso Gortazar. *Izenik gabe* (1991) eta *Izenik gabe* (2002) olioak. Museoak *Behi pintura* (1981) du aspalditik.

Mari Puri Herrero. *Areatza hondoan* (1999) eta *Albia* (2002) olioak. Horrez gain, artistak hogeitabait grabatu eman dizkio museoari.

Luis Fernandez. *Course de taureaux* (1940) olioak. Lehenagotik museoak egilearen *Hildako zezenez burua* (1939) du.

izan ere 1938 eta 1944 urte bitartean Malagako edukitu zuen eredu Fernandezek. Koadroko zaldia eta zezena Picassok *Guernica*-n marraztu zituenetik gertu daude, eta litekeena da Fernandezek haiei zentzu bera eman izana.

Bestalde, partikular biren eskutik museoak Anselmo Guinea (Bilbo, 1854-1906) eta Pedro Atanasio Bocanegraren (Granada, 1636-1689) zenbait lan jaso ditu. Koadroak pinakotekaren berriztatze sailean daude, eta ondoren jendaurrean aurkeztuko dituzte.

ANDOAIN

ALBOKA TALDEA



EKAINAK 23 • ORDUA: 23:15

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. JAI BATZORDEA



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Herritarrak protagonista, Artelekuren inaugurazioan

Goizeko ekitaldi ofizialetan aritu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko agintarien eta euskal kulturaren munduko hainbat ordezkarien ondotik, herritar soil ugari bildu zen atzo arratsaldean Donostiako Arteleku Kultura eta Arte Garaikidearen zentro berriztatua inauguratzeko ekitaldietara.

Eta bereziki, Cristobal Aranda munduko paramotorreko txapeldunak airetik argazki jendetsua ateratzeko egin zuten deialdi bitxira. Argazki horrekin poster bat muntatu eta oroigarri gisa zabalduko du etapa berri honetan eztabaida eta komunikazio gune izan nahi duen Artelekuk.